

Kontabilitate bikoitza

El Mundo del País Vasco, 1991-09-27.

Kontabilitate bikoitza eramaten denean, gehienetan tranpa egiteko izaten da. Zertarako, bestela, zifra berak bi aldiz idatzi? Egia da sumaketa egin daitekela bigarren aldiz proba gisa; automobilean balaztarako pedalak huts egiten badigu eskukoa erabiltzen dugun antzera, edo igongailua ustekabean erortzen hasten bada botoi gorria sakatzeko dugun kontsolamendu alferra. Larrialditarako erremedioen aurretik, matxurak daude, ordea, eta aberia honen itxurazko estali hau legezkoa egin behar denez gero, dagoeneko Estatuak patentatutako iruzurra legeztatzekeo sistema dugu hau: "Bi pisu, bi neurri". Hara bestela: egin berria den epai baten zentzua. Estatuko bi poliziaiei legez leporatzen zaizkien hilketak ez dira "terroristak" izan; Estatuen defentsan libre, herriarenean ez. Hemen okerrena ez da epaileek berak badakitela herriak ez duela gezurra sinetsi, baizik eta ez zaiela axolarik; funtsezkoa zera da: egiaren zerbitzuan egon behar lukeen justiziak independientea gobernuaren esanetara jartzeko lotsa ere galdu duela. Menpe triste hau da justiziarik gertatu dezaioken gauzarik larriena; bankuan nekez aurreztutako diruaren behar gorria dugunean sosik ez duela esango baligu bezala. Gauza bera da, eta seguraski justiziarik eza da larriena, zeren eta dirua haise joaten zaigu, eta injustizia ez. Gainera lege berria egiten duen "prezedentea" sortzen digu. Gobernuaren poliziak, bertatik jasotzen zituzten soldatak, baina ez bilketak prestatzen erabilitako milioi handiak!, eta halere ez dugu Gobernu zentral-ahaltzuaren kontabilitatea arakatzeko eskubiderik.

Kontabilitate hori ez da bikoitza, bakarra eta santua baino.